

Dekanotza - Decanato

Ingenieritza informatiko Gradua

Grado en Ingeniería Informática

Ikasle hori:

Estimada alumna, estimado alumno:

Lehenik eta behin, ongi etorri Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultatera.

En primer lugar, bienvenida/o a la Facultad de Informática de la Universidad del País Vasco.

2025/26 ikasturtea **irailaren 5ean** (ostirala) hasiko da. Aurreneko eguna unibertsitatean berezia da oso, nola ez, eta, beraz, aparte utziko dugu ohiko eskola-ordutegia. Fakultateko zuzendaritzak hastera zoazen Graduako ikasketak aurkeztuko dizkizu, baita ikastegiaren oinarriko funtzionamendua eta ikasleei eskaintzen zaizkien zerbitzuak ere. Ondoren, Ikasle Kontseilua aurkeztuko da. Bukatzeko, saio berezi bat izango duzu fakultateko laborategietan, haietan nola lan egin behar duzun ikasteko. **Ez ahaztu zure kontuaren erabiltzailea eta pasahitza dituen orria.**

El curso 25/26 comenzará el día **5 de septiembre**, viernes. El primer día en la universidad es siempre un día especial, así que modificaremos el horario habitual. El equipo decanal hará una presentación general de los estudios de Grado que vas a comenzar, así como del funcionamiento general del Centro y de los servicios que ofrece a sus estudiantes. Tras ello, se presentará el Consejo de Estudiantes. Por último, tendrás una sesión especial en los laboratorios de la Facultad, para familiarizarte con su uso. **No olvides la hoja con el usuario y contraseña de tu cuenta.**

Aurkezpenez Barriola Gelategian izango dira (fakultatearen ondoko eraikinean), baina laborategiko saioak fakultateko laborategietan izango dira.

La presentación se realizará en el Aulario Barriola (en el edificio junto a la facultad), salvo las sesiones de laboratorio, que serán en los laboratorios del edificio de la facultad.

Ohar garrantzitsu bat. Ikastegiak eta irakasleek UPV/EHUk esleitu dizun **posta elektronikoko helbide ofiziala** erabiliko dute zurekin komunikatzeko. Behar-beharrezkoa da, beraz, posta-kontu hori egunero kontsultatzea.

Un aviso importante. La comunicación del Centro y de los profesores y profesoras contigo se realizará a través de la **dirección oficial de correo electrónico** que te ha asignado la UPV/EHU. Es imprescindible que consultes a diario esa cuenta de correo.

Besterik gabe, zure prestakuntzarako UPV/EHU eta Informatika Fakultatean jarri duzun konfiantza eskertu, eta ikastegi honetan igaroko dituzun urteak gozoak eta probetxugarriak izan ditzazula opa nahi dizut.

Sin otro particular, aprovecho la ocasión para agradecerte la confianza puesta en la Facultad Informática DE LA UPV/EHU, y desearte que tu estancia en este Centro te resulte grata y provechosa.



Nerea Ezeiza Ramos
Dekanoa / Decana

Informazio eguneratua gure webgunean — *Información actualizada en nuestro sitio web*